

Entzute-ariketa benetazkoak* (1)

Don Porter
Jon Roberts

ELT** materialetan ari dira azaltzen benetako hizkuntzaren erabileraren bereizgarriak dituztenak, nahiz eta oraindik ere material horiek ez «benetakoak» izateagatik berezi. Bide luzea dago ibilkizun entzunezko materialgintzan, harik eta benetako erabilkeraren bereizgarriak bereganatu arte; baina oro har baliagarritzat jotzen da behintzat bereizgarri horiek ikasleei heleraztea. Ez da, ordea, hain oro har onartzen benetako entzunaldiaren esperientzia hizkuntzaren bereizgarri batzu entzutea baino gehiago denik: entzuteko iharduera mota asko suposatzen du, eta hauek oso gutxitan erabiltzen dira ELT materialetan.

Benetako entzunaldiak ditu gai artikulatu honek, zenbait esperientzia jaso eta aztertzen dituelarik. Ondoren, benetako testuez baliatzen diren zenbait ariketa ere aurkezten ditu. Ariketa honen helburua da benetako entzunaldietan gertatzen dena isladatzea, ondorengo erantzun eta guzti, beti ere kontuan izanik pedagogiaren mugak.

1. BENETAZKO HIZKUNTZA

Jatorrizko hiztunek eta ingelesa hizkuntza arrotz gisa irakasten dutenek ia zalantzarik gabe eta zehaztasun handiz bereizten dituzte ELTrako prestaturiko entzumenerako testuak eta «benetazko produktua», irakaskuntzarako asmatuak izan ez diren hizkuntza mintzatua- ren adibideak. Hau *benetazko* hizkuntza deituko dugu, jatorrizkoak ez diren ikasleentzat prestatu ez dena.

ELTrako entzumenerako testua «salatzen» duena zer den galdetzen dugunean, entzuleek hizkuntz bereizgarrien multzo zabala aipatzen dute. Adibidez:

• Tonuera

Badago tonuera aldetik EFL**-n erabiltzen diren entzumenerako materiale- tan ama lagakorrak haurrekin erabilita- koarekiko antza handia duena. Igoera mugimendu zabalegi eta egitan oso gu- txitan gertatzen denak markatzen du.

* Ingelesezt «Authentic listening activities», *ELT Journal* (36. bol., 1. zenb., 1981), Oxford University Press eta British Council-ek argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

** EFL (English as a Foreign Language) : ingelesa hizkuntza arrotz bezala.
ELT (English Language Teaching) : ingelesaren irakaskuntza.

Eta horrelako tonuera haurrentzat egokia izanik ere, zeharo desagokia da ELT inguruan gertatzen diren egoeretarako. Hoberenean farregura ematen du ikasleen artean; txarrenean, haserrean, honek berekin dakarren desmotibaketa eta materialarekiko arbuioarekin batera.

• *Jasotako ahoskera*

Azken aldiko salbuespen batzutan ezik, britaniar ELT kasetetan aritzen diren esatari gehienek RP*** azentua dute, edo bertatik oso hurbil dagoena. Era horretan ikasleak entzuten duena ez da inola ere Britainia Haundian entzungo duena bezalakoa, britaniar gutxiengoa bakarrik mintzatzen bait da azentu horrekin. (2)

• *Enuntziaketa*

Esatariek hitzak zehaztasun handiegiz enuntziatzeko joera dute; asimilaketa eta elisioa murrizak dira.

• *Egituren errepika*

Zenbait funtzio edo egitura maiztasun nabarmenegiaz agertzen dira.

• *Esaera osoak*

ELT entzumenerako materialek, mintzaera informalaren berezitasunik arruntena den esaeraren puskaketa ekiditzeaz aparte, beraietan aritzen diren esatariak ongi egituratutako perpaus labur eta errazetan mintzatzen dira eta ez askoz naturalago diren lotura gutxiagoko esaeretan. (3)

• *Txandaketa garbia*

Mintzale bat baino gehiago leudekeen eztabaida, harreman edo elkarrizketetan ELT testuen entzuleek mintzatzen ari denak bukatu arte zain egon behar izaten dute berek txanda hartzeko; benetazko egoeretan ez da horrelakorik gertatzen.

• *Erritmoa*

ELT entzumenerako testu tipikoak erritmo uniforme du, erritmo geldia. Uniformitatea desagokia gerta dakioke mintzaera tipoari, aspergarria izateaz gain; moteltasuna haserregarria izan daiteke. Gainera, ikaslea ez da batere ohituko benetazko mintzaeraren arintasun eta aniztasunera.

• *Kopurua*

ELT elkarrizketa tipikoan bi mintzalek gutxi gora-behera kopuru berdina esaten dute, batak zein besteak gutxi esaten dutelarik gainera. Eguneroko bizitzan normalagoa izaten da une batean mintzale batek elkarrekintza menperatzea besteak rol apalagoa jokatzeko duelarik, nolabaiteko elkarren arteko akordioz edo beste edozein arrazoiengatik rolak aldatu arte.

• *Arreta-keinuak*

Arreta-keinurik arruntenak falta direlako, ELT elkarrizketako txandak ez dira batere biziak. «Uuh» eta «mm» horiek garrantzizkoak gertatzen dira, entzulea parte hartzen ari dela adierazteko.

• *Formaltasuna*

Materialak ia literarioa gertatzen den normalizapenera bihurtzeko joera dago. Horrela bai joskera eta bai hiztegia arautuak gertatzen dira. Hitz zikinak ez dira inoiz agertzen eta kaleko esaerak eta beste zenbait forma kolokial ere gutxitan azaltzen dira.

• *Hiztegi mugatua*

ELT testuetarako hiztegia «garbitua» izan da, «txukundua» eta murriztua alde askotatik. Badirudi testuetako edukinak eguneroko bizitzako puntualtasunetik edo une eta gertakizun zehatzetatik «kanpo» geratu beharko lukeelako erizpide orokorra dagoela edo. Bene-

*** RP (received pronunciation): jasotako ahoskera.

tazko entzumen esperientzian putualtasun hauek etengabe eragiten dute. «Kooperatibak» edo «kanguroak» eta «musika etxeak», «prestamoen interesak», «Yatollah» eta horrelako interes-gunei egindako erreferentzietan ainguratzten da hizkuntza. Eta horrelako esperientzirik ezak bihurtzen ditu ELT testuak interesgabeak.

- *Informazio gehiegikeria*

ETL materialen indazleek nolabait material horietako esatariek eta entzuleek elkar oso gutxi ulertzen dutela konturatzten direnean, ez dutela elkarrekin amankomuneko ezagutzarik, errealtatean normala den baino objektu, jende eta esperientziekiko askoz erreferentzia zehatz gehiago eskaintzen dute.

- *Mutilaketa*

Entzumenerako testuetan oso gutxitan fortunatzen dira entzutea eragozten duten zaratak, idazmakinenak, iragaien ari diren autoenak, mintzatzen ari diren beste pertsonenak etabar. Baina kontutan hartu beharra dago «mezua mutilatze» hori benetazko entzumen esperientziaren zatia dela.

Jarrai gintezke. Baina zerrenda honek ezer oso garbi uzten badu, honako hau da: badagoela *desegokitasun* masiboa normalean entzuten dugun mintzaera eta ELT ikasgelan ikasleak entzuten duenaren artean. Horrez gainera, badago gezurrezko parekatze bat ikasleak entzuten duen hizkuntzaren eta arikeratzea eskatzen zaionaren artean. Harrerarako eta aritzerako hizkuntzaren parekatze hau izan liteke, agian, ikasgelan ongi aritu arren gero gelaz kanpoko munduan galdurik aurkitzen den ikaslearen egoeraren zio nagusia. Zalantzarik gabe, ez zaie kanpoko munduaren hizkuntzarekin bat etortzen utzi. Beren hiztegiaren mugazi barruan eta RP azen-tuarekiko hurbilketan, hor adierazten dituzte beren ongi osaturiko esaldiak beren ingeles formal horretan. Ulertuak dira, noski. Gero, beraiekin ari direnek lotura handiegirik gabeko esaldi eta per-paus-katea botatzen diete, hizkuntza kolokialean eta bertan ezaguntzat jotzen

diren erreferentziaz josita eta, agian, ez horren ahozkatutako bertako azentuaz. Ikasleak ezer gutxi ulertzen du edo, agian, batere ez. Besteek ere beraiei irakatsi zaien hizkuntzan mintzatuko direla pentsatzen dute; ez da horrelakorik gertatzen.

Nola iritsi gara harreraren eta ekoiz-penaren berezitasunak horretaraino nahastera? Gure eritziz, ia osoro, entzumen beste edozein trebetasun baino askoz merkeago saldua izan delako. Hizkuntz ariketen munduko neskame bihurtua izan da. Rol hau zehaztatua gelditu zen teori audiolingualean tajututako sailkapenean: entzun-mintzatu-irakurri-idatzi. Horrela entzumenerako arikeratzearen helburua hizkuntza mintzaturako egituratze ereduak *ezartzean* zentzan batez ere (Rivers, 1964, 103. or.). Mintzaten irakasteko hizkuntz estrate-giaren lehenengo pausua entzutea zen eta ez zuen zer ikusirik benetan entzutearen muina den informazio berriaren eta ustegabeko hizkuntzaren eta hauen berezitasunen manipulazioarekin.

Ikasleei, hitzegiten dutenaren eta entzuten dutenaren arteko *desegokitasun* horretan lagundu nahi badiegu, gutxienez behintzat, benetazko hizkuntza eman behar diegu eta, egokitasun hori ahalik eta gehien lortzearen, baliagarri dakiekena lantzen jardun erazi. Dena den, zera hau azpimarratu nahi genuke: ez ditugu ikasleak guztiz edo ezta ere gehien batez eguneroko bizitzan probaturiko materialen aurrean jarri nahi: zilegi da mintzatzeko eredu gerta daitekeen entzumenerako materiala eskaintzea eta irakaskuntzaren zati garrantzitsua halaber. Baina horrekin batera hau ere esango genuke: ezin dugu espero ikasleak inoiz edo oso gutxitan entzun duten hizkuntz motetan aritzea.

2. BENETAZKO ENTZUMEN-EKINTZA

Benetazko materialaren beharra eta balioa gero eta onartuagoa izan da azken urteotan. Baina hor geratu behar al dugu egiazkotasunaren berezitasun lin-

guistikoekin? Gure ustez, askoz gehiago dago benetazko entzumenean, batez ere ekintz motari dagokiona, edota entzuleak entzuten duen hizkuntzari jasan erazten dion prozedura eta prozedura hauen ondorio fisikoak kontutan hartuz. Ekintzen, prozeduren eta hauen ondorengo portaeren aberastasuna eta aniztasuna ia landu gabe gelditu da ELT materialetan. Dударik gabe, leikeena da benetazko testuak tamalezko modutan lantzea, baina horretara mugatzeak aukera asko galarazten dizkigulakoan gaude: posible bazaigu egiazkotasunera hurbiltzea, zergatik ez egin? Gure esperientziak dioenez, ikaslea hizkuntzaren erabilkera normalera datorrenean, orduan eta gogo haundiagoz hartzen du.

Adibide gisa, pentsa ezazu zenbat bider entzun behar izaten duzun egunean zehar. Pentsa ezazu zer doan zure burutik entzuten duzun bitartean (prozedura) eta nola adierazten duzun hori bera zeure joeran. Hona hemen egun arrunt bateko zenbait erakuski.

Ekintza Irratia entzutea: Eguraldia, albisteak, «Gaur egun» programa.

Prozedura

1. «Belarri batetik sartu eta bestetik irten». Hau oso azaleko entzumena da, esaten dena ia batera kontutan hartu gabe. *Ondorioa:* hutsa.
2. Ebaluatzeko entzutea, norberarentzat edo lagunentzat interesgarri gerta daitezkeen topikoen bila. Zera honek topikoak norberaren edo lagunaren interesekin parekatzea eskatzen du eta mentalki zenbait ohar jasotzea. *Ondorioa:* laburpena eta gerorako birkontaketa.
3. Informazio berezian zentratutako entzumena. Esate baterako, eguneko eguraldiari buruzkoa. *Ondorioa:* egunerako ekintza egokien hautaketa edo jantzi behar diren jakzi egokiena.

Ekintza Aurrez aurreko elkarrizketaren interjokoa entzutea.

Prozedura

1. Ebaluaketa, komentaketa mentala eta pentsamoldearen hedapena. *Ondorioa:* ahozko erantzuna.

2. Norberaren txanda adieraziko luketen elkarrizketa-keinuak entzutea. *Ondorioa:* txanda une egokietan hartzea.
3. Entzumen afektiboa; esate baterako, ez hartzuna esaten ari dena, nola esaten ari den baizik. (Adibidez, haserreturik zegoen, pozik, harriturik...) *Ondorioa:* keinu afektiboekiko erantzuna.
4. Feed-backerako entzutea. Mota honetako entzumenean hartzunak mezua adieraztean izandako arrakasta kontrolatzen du. *Ondorioa:* esandako edukinen aldaketa edo errepikapen egokia.
5. Erizpidetzen. Norbaiti entzuten diogun bakoitzean hasten gara berari buruzko erizpideak tajutzen: nondik datorren, nolako istoriala duen, bizia edo lasaia den, umore-zentzurik duen etabar. *Ondorioa:* guk geure burua ikusten dugun eran aldatzen dugu solaskidearekiko portaera ere.

Ekintza Agurrak entzutea.

Prozedura

1. Norberaren gizataldeko beste kideen onarpena baieztatzea; esate baterako, agurrei ez erreparatuz edo erantzunik ez emanez, norberaren gizataldeko beste kideen sumindura sor daiteke. *Ondorioa:* tajuz erantzutea.

Ekintza Administrazioaren aldetiko eskakizunak entzutea (aurrez aurre), eskaerak, iradokizunak edo instrukzioak direla eta.

Prozedura: Beharrezko joera erabakitzea. *Ondorioa:* ekintza fisikoren bat egin, ahozko erantzun egokia eman, norbaiti telefonoz deitu eta informazioa eskuratu edo eskatu.

Ekintza Telefonoa entzutea. Zera onen solaseko elkarrekintzaren edo administrazioaren aldetiko eskakizuna entzutearen prozedura eta ondorio berdinak lituzke, baina ez ikusteak garrantzi berezia emango lioke entzuteari geroko entzumenaren feed-backerako, entzumen afektibo nahiz erizpidetzerako.

Ekintza Kukuxeria. Zenbaitek eskrupulo moralak ukan ditzake besteren el-karrizketa pribatuak entzuteagatik, baina ekintza honek izugarrizko lilura dauka hizkuntza arrotzen ikasle askorentzat. Hau da arrazoiak: kontsumorako manipulatu ez diren esamesak entzuten ari direla-esandakoa pribatua izateak bermatu egiten du entzundakoaren egiazkotasuna. Horrez gainera, ikasleak ez du parte hartzeko inolako presiorik sentitzen. ELT entzumenerako materialetik askok eta askok inplizitoki jartzen du ikaslea kukuxeri zalearen rolean; baina ez benetan, ikasleari dena ulertzea eskatzen bait zaio, benetazko kukuxerian entzuleak elkarriketa-zatitxoak jaso eta elkarri lotzen dizkion bitartean. Beraz, egiazko kukuxeri egoerak ikaslearen —eta entzule ororen— esanahia zatika eta puskaka jaso beharra isladatzen du, gero puska horiek elkarri josiz esanahirik ahalik eta koherenteena izan dezaten.

Prozedura: Zati batzutatik mezu adierazkorra berrosatzea. **Ondorioa:** entzulea bakarrik baldin badago, hutsa, geroko birkontaketa posiblea izanik ere. Entzulea beste norbaitekin baldin badago, informazio-trukea gerta daiteke (zer esan du?).

Kukuxeriaren aldaketa besteren telefono-deia entzutea da.

Prozedura: Entzun gabe geratu den zatiaren berrosaketa, entzundako zatiaren eskainitako egituraketa, joserak, semantika eta fonologia aldetiko az-tarnen arabera. **Ondorioa:** hutsa, edo kukuxeroak entzungabeko zatiari buruzko asmaketa baieztatzea nahi izan-godu, deia egin duen pertsonari gal-detuz.

Ekintza Telebistan edo aretoan filma-ren bat ikustea etabar.

Prozedura: Gaiaren garapena jarraitzea, argudio logikoa etabar, begibistan dauden mintzaleak edo edukinei buruzko begibistako informazioa kontutan hartuz. **Ondorioa:** 1. une ego-kietako farra; 2. geroagoko argudioa-ren, motibapenaren, jokoaren ezta-

baida; 3. birkontaketa. «Izugarri atse-gin nuen James Bond-ek Jaws-en eror-gailua txikitu zuenean»...

Ekintza: Abesti grabatuak entzutea.

Prozedura:

1. Belarri batetik sartu eta bestetik atera.
2. Hitzak jasotzen saiatu. Ertainen denborapasarik gustagarrienetako azken arrakastaren hitzak ateratzea izaten da askotan, prozeduraren zati gisa, ahal dutena idatziz (*ondorioa*).
3. Korua eta doinua jasotzea. *Ondorioa:* beste guztiekin batera abes-tea.

Hemen aipatu diren ekintza, proze-dura eta ondorioek ez dute behin betiko zerrenda izan nahi; alderantziz, hauta-pen minimoa besterik ez dute izan nahi. Nahikoa litzateke une labur batez egu-neroko bizitzaz pentsatzea, adibide gehiago aurkitzeko. Baina lehen era-kutsi ditugun benetazko hizkuntzaren bereizgarriak aberatsak baziren bere aniztasunean, entzumenerako ekintza, prozedura eta ondorioen zerrenda labur honek entzumenerako *bide* asko dagoela adierazi nahi du. Ikasleak, ez gela bar-ruko laborategi gisako baldintza kon-trolatuen ondorio den aurrerapen abs-trakto hori, baizik egiazko abildadea lortzea nahi badugu, orduan *benetazko* entzumenean aritzeko aukera eman behar zaio.

Horrek ez du esan nahi nolabaiteko aztatzerik eta hautatzerik egin behar ez denik. Banakako irakasleek eta mate-rial-prestagileek hauetako zenbait ekin-tza ikasgelan sartzea batzutan desego-kia eta bestetan errentagarritasunik ga-bekoa dela pentsa dezakete, beste ba-tzuri, berriz, bultzada handiagoa ema-ten zaielarik. Adibidez, pentsa daiteke ez litzatekeela kukuxeria bultzatu behar, agurrak entzutea eta horrekiko erreak-zioak sortarazteak oso denbora gutxi hartu beharko lukeela ikastaroan eta, alderantziz, zenbait murriztapenen bi-tartez egindako informazio bereziaren entzumenari edo ikusentzunezko medioz burututako argudioaren garapen logi-

koari askoz ardura gehiago eman beharko litzaiokeela. Uste dugu hartzen den erabakiaren arabera guztiz desiragarria litzatekeela benetazko entzumenen lan-tzeko *aukerak* ematea.

Honako hau da gure argudioa: ELT-n nolabaiteko aurrikuspenera egin beharko luketela, ikasleak benetazko entzumen-egoerak eskatzen dituen entzumen prozeduratan sartzerik izan dezan. Txosten honen bigarren zatian entzumen-ekintza bereziak eztabaidatuko ditugu eta adibideak emango.

3. BENETAZKO ENTZUMEN- -EKINTZAK IKASGELAN: ASMAKETA ERAGILEA

Oraindik oso hedaturik daude ikasge-letan *Aukera ezazu* eta *Noiz Non Nora Nondik Zergatik* eta kideko galderak entzumenerako materialez baliatzerakoan, zatia benetazko hizkuntzakoa izanik ere. Gure ustez, galdera horiek eskatzen duten testuaren erabilera, agian sor diezaike ikasleei lehendik xede-hizkuntzarekiko duten esperientziaren aurkako jarrera. Irakasleek sarritan esan ohi dugu ikasleen eritzia dela *dana ulertzen ez badut, ez dut ezer ulertuko* eta tajuzko interpretapena egiteko ezinbestekoa dela *ulermen osoa*. Hala ere, badira zenbait keinu adierazten dutenak ez dela hori hizkuntz ikasle hobereenen kasua. Naiman-en *Hizkuntz ikasle ona* estudioan (Naiman et al., 1978) zera esaten zaigu, ikasle hasiberriak «zaletasun handiko asmatzaile aktiboa» izan behar duela eta bere hizkuntzarekiko esperientzia zuzenaz oso-osorik baliatzeko gauza izango dena. Honen arabera, desiragarria litzateke ikasleek «zatikako» ulermena eta eskaintzen zaizkien aztarna oro erabiltzea, asmaketa eragileen oinarri direnez.

Gure eritziz, *Aukera ezazu* ariketak eta galderak egiteko era askok murriztu egiten dituzte ikaslearen testuarekiko zaletasunezko jarrerak. Irakaslearekiko morrontzara bultzatzea ezakete eta, testuaren zati luze eta osoak ulertu eta gogoratzen ez dituenek, «zatika» ulertzea-

ri beldurra edukitzera. Horrez gainera, ariketa hauek zera suposa erazi diezagukete, hots, ikaslearen ulermen-helburua irakaslearen buruan dagoen testuaren ezagupenaren arabera bakarrik uler daitekeela eta, ezagupen hau «osoa» eta xehetasunetan aberatsa izanik, testuaren eta ikaslearen artean irakaslea dagoenean bakarrik lor daitekeela. Ikasleari «eratorpen handiko» galderei emandako erantzunen bitartez, froga eta birrosaketa-ariketen bitartez bakarrik posible izango zaio berak testuan «ulertzen duena» eta irakasleak ulertzen duena parekoak direla adieraztea. Testuak bere barrenean helburu diren ezagutzak dituenean agian egokia litzateke hurbilpen hori. Halere, arrazoi askorengatik entzuten dugu, eta «ulermen osoa» horietako bat bakarrik da. Ariketa alternatiboen bitartez ikus dezake ikasleak testuak hizkuntz eredu gisa aparte ere ulertuak izan daitezkeela.

Ulermeneranzko hurbilketa zabalago batek onartzen du hizkuntz argibideen eta nahiz parahizkuntzarekiko nahiz egoerarekiko informazioa erabiltzeko daukagun trebetasunaren arabera ulertzen dugula xede-hizkuntza. Jatorrizko hitzunek ere ez dute ulermen osoaren zama euren gainean inposatzen eta onartu egiten dute lausoa. Adibidez, BBCren itsasorako eguraldi-igarpenean milioika entzulek adi dezakete haizeak «hego-ekialderantz orraztuko duela». Bertan sartuta ez dagoen jendearentzat «orraztu» horrek «mugitu» adieraziko du eta nahiko pozik geratuko da argibide horrekin, itsasgizonei zerbait gehiago adieraziko diela jakinda ere (4). Bere ulermena zatikakoa zaio, baina nahikoa eta bere ezagupenaren arabera. Adibide soil horrek egia orokorrera eraman nahi gintuzke: onar dezakegu, areago, onartu beharko ditugu lausotasun-mailak geure testuarekiko ulermenean. Hala ere, edozein motako testuak oso-osorik ulertzera iristen saiatzeko eskatzen digu hizkuntz ikasleari. Testuekiko esperientzien mundu zabalagoa eskatuko genuke, alde batetik, ikasleak zenbait unetan behar ez dituen mezuaren zatiak ahanztera bultzatzea ezagun eta, bestetik, testuari buruzko «asmaketa hoberenak»

egin ditzaten, jakinez testua horrela, zatika, ulertzea nahikoa dela. Ikasleek beti lor dezakete *zerbait* ingelesko testu batetik. Geroxeago dakargu zenbait adibide «zaticako ulermen» nola egin daitekeen erakusteko, testua mezuaren balioagatik eta ez ezagupen iturri edo eredu gisa erabili bait dugu.

4. BENETAZKO TESTUA, BENE-TAZKO ERABILKERA

Entzumen ulerkorrerako benetazko testuek ikasgelan benetazko egoeran jatorrizko hiztunak jokatzen duen rola beregitera bultzatzen gaituzte. Hau da honen zergatia: benetazko testuak helburuaren arabera egituratzen direla. Esate baterako, irriti-iragarkia laburra da eta deigarria, sarritan entzuna izateko prestatua, eta oso dramatikoak eskaintzen du informazio-zatitxoak. Arreta deitzeko eta oso mezu mugatua barneratzeko (doinua, marka-izena) dago eginga eta askotan beste zenbait mediok ere eutsi egiten diote. Entzulearen rolak testua ikasgelan nola lan daitekeen ego-kiro adierazten du: markaren izenaren ezagupena; informazioa apuntatzea (prezioak, telefono-zenbakia eta helbideak); nahitaezko birgogoraketa. Ez litzateke inola ere testuaren izakerarekin bat etorriko galdeketa xehea lortzea eta aukera

askotako adibideetan eskatzen den bereizketa semantikoa iristea; kontuz ibili beharko genuke eskuarteko testu-motari ez dagokion edozein hedapen-sistemarekin. Arrazoizkoa litzateke ahozko bidai-gidetan «informazio-transferra» erabiltzea, baina ez abestietan. Egokia litzateke ikasleek entzuten dutenaren nabardurak zorrotz arakatzea eguraldiaren igarpena edo geltokiko oharrak entzuterakoan, baina ez deskribapenerako monologo luze batean, zeinetan lotura estua bait dago testua osatzen duten zatien artean. Horren argi ikusten dugun zera hau arbuia egiten da askotan benetazko testuen lanketan.

Ondorio gisa hau esango genuke: «aukera ezazu», «fija zaitez» eta era horietako ariketetan ematen den testuaren eredu gisako erabilkerak ez duela baimentzen eguneroko bizitzan topatzen dugun entzumen-esperientzien katea. Ikasleak ikasgelan esperimendu beharko luke katea hau. Horrez gainera bada, espekulatiboa izanik ere, baieztapen indartsuagoa; hau da, ariketa konbentzional horiek *eragotzi* egiten dutela mintzamina eta hizkuntza ikasteko beharrezkoa den estrategia. Beraz, ontzat jotzen dugu ikasgelan lehen aipaturiko ekintzak, prozedurak eta ondorioak parakatzea, ikastaldearen baldintzak kontutan hartzen direlarik. Azken batez, «entzuteko rol-jokoaren» alde gaude.

Geltokitako iragarkiak

(Reading-eko geltokian grabatu genuen guk erabilitako materiala. Azpiko zarata dago eta bozgailuek egindako bihurketa.)

Helburuak

«Moztutako mezuaren» berezitasunen esperientzia ematea; helburu jakinarekin entzutera bultzatzea, horretan gero baieztatuko edo ukatuko zaizkion esperantzak jartzen bait ditu ikasleak.

Prozedura

- Entzun aurreko fasea: irakasleak iragarkizunetik espero dutena eta jadanik dakitena batzera bultzatzea ikasleak eta beharrenezko hiztegia eskaini halaber, benetazko testuan gertatu aurretik. Honelako galderak egin ditzake: «Geltokian zaude. Iragarkia entzungo duzu. Gizona ala andrea izango ote da iragarlea? Zertaz mintzatuko ote da? Zer esango ote digu datorren trenari buruz?» (Erantzun posibleak: ordua, luzapena, zein tren den.) «Zer gehiago esango digu?» (Erantzun posiblea: kaia.)


Batu ala garatu egiten da ikasle bakoitzak emandakoa. Orduan irakasleak errealitatean iragarleak zer esango duenaren iradokizunak eska ditzake. Esate baterako,

ikasleek etorrera-orduari buruzko informazioa izango dela iradokitzen badute, irakasleak galde dezake zer esango duen iragarleak: «Tren bat 11'02etan etorriko da esango al du?» (Geltoki baten irudia lagungarri gerta daiteke, une honetan Britainia Handiko geltoki batekiko ezberdintasun kulturalak eta ezjakintasuna ager daiteke-nez.) Entzun aurreko faseari ematen zaion denbora, iragarkizunaren luzaeraren araber a da daiteke.

- b) Entzumen fasea: ikasleek entzun egiten dute mezua eta bertan eskaintzen denari buruz komentatzen dute. Honen ondoren, posible litzateke berrir entzutea, traskribapena irakurtzen den bitartean. Horren ordez edo horrekin batera irakasleak rol papera eman diezaiok e ikasle bakoitzari.

Paddington-etik Torquay-ra zoaz.

Cardiff-era doan 11'02etako trenean zaude eta Reading-en geratzen da.



Entzun iragarkizuna. Aldatu behar al duzu?

Horrela bada, non? Ziur ez bazaude, galdetu norbaiti.

Entzumenaren ondorioa galderen erantzuna bakarrik izan daiteke edo rol-jokoaren hedapena, zeinetan ikasleek tren zuzenean dauden ala ez ziurtatzen bait dute. Irakasleak bidaiari baten rola joka dezake edo trenbideko langilearena.

Eguraldiaren iragarpena

(Ahalik eta oraintsukoena)

Helburuak

Ikusmenaren laguntzarik gabe, informazio berezira zuzendutako entzumena ariketatzea; jatorrizko hitzunen inguruguneko murgilketa bultzatzea; edozeinek dituen eza-gutzak erabiltzea, mezuaren tankera eta edukina asmatzeko; lurraldetako azentuetara ohitzea; egitura errepikatzaile testu motzei aurkeztutua izatea.

Prozedura

Irakasleak ikasleengandik iragarpenaren egitura eta edukinen ezagumena eskatzen du. Ikasleek tokia aukeratzen dute mapan, euren gustora edo emandako rolari jarraituz. Gero entzun egiten dute eta xehetasun garrantzitsuenak idatzi. Guzti hau egin dezakete ikasleek:

- a) eskualdeko eguraldiari buruzko xehetasunak eskaini irakasleari;
- b) talde txikitik besterekin informazio trukatu;
- c) jatzera egokiena aukeratu;
- d) egunerako zenbait ekintza eztabaidatu eta aukeratu.

Bi irrat-emanaldi

(Ahalik eta oraintsukoenak eta bata besteagandik oso denbora gutxira emanak: ordubete, esate baterako.)

Helburuak

Ikusmenaren laguntzarik gabeko entzumena eta arakaketa ebaluatzailea; edukina iragartzearen lehendik jakina denaren erabilkera; erabidezko erritmoan emandako egitura errepikatzaileekiko erabidezko testuari aurpegi ematea.

Prozedura

Irakasleak ikasleengandik albisteen edukinei eta eratzeari buruzko ezagumena eskatzen du.

- Ikasleek lehenengo emanaldia entzuten dute, interesgune bila noski, eta besteek jasotakoa berenarekin konparatzen dute. Gero bigarren emanaldia entzuten dute informazio berriaren eta beste ezberdintasunen bila.
- Ikasleek lehenengo emanaldiaren edukinen igarpena egiten dute. Gero entzun egiten dute, igarpenak egiaztatu, eta bigarren emanaldian egingo diren lehentasun-gaien igarpena burutu. Azkenik, entzun egiten dute eta igarpenak egiaztatu.
- Ikasleek egun bereko egunkariak arakatzen dituzte topiko nagusien bila eta entzun egiten dute emanaldia, zeintzu bat datozen ala ez eta nolako garapenez egiaztatzearen. (5)

Abesti grabatuak**Helburuak**

«Belarri batetik sartu eta bestetik atera»; hizkuntza eta kulturarekiko ezagumena jasotzea; esaldi eta hitz zehatzen bila entzutea; testuinguruaren eta ezagumen kulturalaren erabilkera, forma eta edukina iragartzearen. Barne-egitura bortitza duten erritmo erabidezko edo moteleko testuei aurpegi ematea.

Prozedura

- Ikasleek fondoan entzuten dute abestia.
- Ikasleek, tarteko saio gisa, osagabeko testua irakurtzen dute eta gero kendutako zatien forma eta edukina asmatzen. Hitz ezezagunen esanahia asmatzen dute eta, testua osatu arte, behin eta berriro entzuten dute abestia, beren igarpenak egiaztatuz. Azkenik, kasetea jar dezakete eta denak batera abestu.

Irrati iragarkiak**Helburuak**

«Gutxiengo» ulermena bultzatzea; mozketak eta aldaketak dituen testuari aurpegi ematea. «A»-n bezala, baina informazio-transfer mugatuaz.

Prozedura

- Erakutsi produktu ezagunen lau marka ezberdineko paketeak (esate baterako, esneak). Ikasleek gero zenbait iragarki entzuten dituzte, horietako batek ikusitakoen artetik bat bultzatzen duelarik. Ikasleek marka identifikatzen dute (eta, nahi izanez gero, erosiko ote luketen adierazten).
- Ikasleei rol paperak ematen zaizkie. Esate baterako: *Azaroa da. Ez duzu neguko berokirik. Bat erosi nahi duzu. Edo – gaur gauean zinemara zoaz lagunekin. Westernak eta beldurrezko filmak gustatzen zaizkizu. Edo – etxeakoandrea zara eta haurren otorduetaarako errezetak nahi dituzu: barazkiak, arraina, oilaskoa eta arraultzak gustatzen zaizkie.*

Ikasleek zenbait iragarki entzuten dituzte, horien artean merkalditan dagoen neguko berokiena, beldurrezko filmearena eta arraultzena daudelarik. Azkeneko honetan, gutun bat idaztea eskatzen zaie ikasleei doaneko arraultz errezeta bidal diezaion. Gero ikasleek adierazgarri zaizkien izenak, telefono-zenbakiak, helbideak eta izen-buruak apuntatzen dituzte.

- c) Irakasleak zenbait iragarki grabatzen ditu denborapasarako eta egunkari-ebakinez osaturiko kartelera-gida burutzen du. Ikasleek aurrena gida begiztatzen dute eta nahi dutena aukeratzen. Gero, kasetea entzuten dute eta beharrezkoa zaien gainerako informazioa ateratzen: emanaldien egunak, orduketa, prezioa... (6)

Pertsonaien sailkapena

- d) Ikasleek «itzal» haundiko ahotsen iragarkiak entzuten dituzte eta ahotsak jende mota ezberdinaren irudiekin parekatzen saiatzen dira. Egin duten aukeraren berri ematen saiatzen dira.

Elkarriketa-zatiak

Helburuak

Asmaketa bultzatzea: ikasleak giltzak, argibideak gorde behar ditu, bere oroimenean hipotesiak osatu eta egiaztatzearren.

Prozedura

Jai batera gonbidatua izan denaren rolean, zertxobait entzun daitezkeen elkarriketetan kukuxatzea eskatzen zaio ikasleari. Ulermen aldetiko xehetasun- kopurua mailaren arabera geratzen da, batzutan topikoa orokorki asmatzea nahikoa delarik. Bultzagarri gisa, lanerako orria eskuratzen zaio ikasleari, mintzaira-estilo berrian sartzen lagun diezaion. Eskualdez eskualdeko aldaketak eta erritmo bereziak ditu eta agian diskurtsoa moztuta egon daiteke. Hau da lanerako orria.

Kukuxean

Zure eskolako Ikasketa Zuzendariak emandako jai batean zaude. Irakasle eta ikasle asko dago. Alde batetik bestera zoazela, elkarriketa-zatiak entzun ditzakezu. Saia zaitetz jendea zertaz ari den asmatzen. Lau elkarriketa entzuten dituzu. Atseginago al zenuke bateren batean parte hartzea?

Nahi izanez gero, oharrak ere idatz ditzakezu.

Topikoa

Interesaturik al zaude?

1.

2.

3.

4.

Lehenengo hitzen transkripzioa ematen da lan-orri bakoitzean.

Materiala lantzeko oharrak

1. Ekintz mota honek orduan eta eragin eskaxagoa du loturagabeko ulermen-ekintza gisa aurkezten den neurrian, ikasgaiatik at. Azken batez, benetazko entzumena ez da inoiz bakardadean gertatzen. Gure ustez, entzumenak gorpuzturik egon beharko luke nahiz topikoen bitartez nahiz erlazonaturiko esperientzi sailean.
2. Zailagoa egiten zaie ikasleei benetazko testuak entzutea idealizaturiko eta normalizaturiko materiala entzutea baino. Eskaintzen zaizkien hizkuntzarekiko eta parahizkuntzarekiko argibideen eta haiek erabiltzeko eraren arabera burutuko dituzte ikasleek beraiegandik espero diren ekintzak. Burutapen honek erabakiko du zein testu motak aukeratzen den. Halere, badago zenbait benetazko testu arbuizatzeko arriskua, ikasleen arrakastaren izenean; irakasleak erne egon beharko luke, errazegiak izateagatik, inolako asmaketa eta hautaketa eskatzen ez duten testuak aukeratzera, berez ekintza egokia izanik ere.
Hobe da ekintza hauetan transkripzio-rik edo sarritan egindako birjokatzerik ez erabiltzea, entzuleak testua vis a vis ikusi behar duenerako egokia denean ezik. Transkripzio-rik ez erabiltzeko edo sarritan egindako birjokoaz ez fidatzeko erabakiak, berri, oso testu motzak erabiltzea suposatzen du edo barne-egitura argia eta errepikatzailea dutenak (albiste-emanaldiak, esate baterako), testu luzeagotarantzko esperientzi gisa. Testu laburrak edo gertakizun motzen katea erabiltzeak zama handiegitzeko arriskua ekiditzen du, testu osoa ulergaitz bihur zezakeen elementuren bat ez ulertzea.
3. Ikasle askori oso lagungarria gertatzen zaie transkribapena entzutea eta erabiltzea, benetazko mintzamenarekin aritzerakoan. Entzun dezake-te, gero une berean entzun eta irakurri, gero entzun berriro. Hau oso la-

gungarria da soinu-hariaren ebaketetan eta forma ahulen edo beste murriztapen gertakizunetan ihardutera-koan. Benetazko materialen lantze hau oso baliagarritzat jotzen dugu, iradokitzen ditugun ekintzentzat osagarri den entzumen trebetasuna garatzerakoan.

4. Benetazko testuen erabilkerarako zailtasun-iturri da eguneroko bizitzan entzulea, ahozko hizkuntzaren interpretapenean, egoeraren adierazgarrien (kokapena, hiztunen itxura, gorputz-hizkuntza eta abar) eta munduarekiko ezagumen arruntaz lagundua izatea. Zailtzarik gabe, benetazko testua asmatzeko posibilitatea oso murriztua gelditzen da, egoerari buruzko informazioa eta kulturalki jasotako ezagumena falta badira. Orduan eta handiagoa gertatzen da esanahia ateratzeko edonoren trebetasuna, albiste-emanaldien egituraketa eta zer eskain dezaketen gauza ezagunak direnean. Bestalde, ez baduzu albiste-emanaldiei buruzko esperientziarik eta ez badakizu zer eman dezaketen, zeharo mugaturik gelditzen da ulertzeko trebetasuna, eta laguntza eskaxekoak izaten dira, bai transkripzioak nahiz birjokatzeak edo bapateko itzulpenak. Beraz, ikasleak testuaren formatoa ezagutzen duen heinean edo aurrez jaso duen informazioaren arabera erabaki beharko da testuen hautaketa, lantze-prozesua eta prestaketa-lan posiblearen izakera. Garbi dago formatoaren eta honen edukina izan ditekenearen ezagumena lortzea hizkuntz ikaskuntzaren helburutzat jotzen den muga kulturala pasatzearen zati bat dela.

5. ONDORENA

Ez ohizko entzumen-ekintzen albortzea baizik osaketa baliagarria iradoki dugula espero dugu, nolabait ikasleak benetazko entzumen esperientziarako hobeto prestatzearen lagungarri izan daitekeena.

6. OHARRAK

- (1) Artikulu honek International House, Londonen, 1979ko azaroan beronen egileek egindako aurkezpenean du oinarria.
- (2) HUGHES eta TRUDGILL-en ustez (1979) Britainiako biztanlegoaren %3ak hitzegiten du RP-z.

- (3) «Backing» hitzak eguzkiaren norabidearen alderantziz mugitzea esan nahi du.
- (4) BRIAN ABBS-ek iradokia.
- (5) BRIAN ABBS-ek iradokia.

ERREFERENTZIAK

- CRYSTAL, D., D. DAVY (1969): *Investigating English Style*, London, Longman.
- HUGHES, A., P. TRUDGILL (1979): *English Accents and Dialects*, London, Arnold.
- NAIMANN, N., M. FROHLICH, H. STERN, A. TODESCO (1978): *The Good Language Learner*, Research

- in Education Series No. 7, Ontario Institute for Studies in Education.
- RIVERS, W.M. (1964): *The Psychologist and the Foreign Language Teacher*, Chicago, Chicago University Press.

EJERCICIOS DE AUDICION DE TEXTOS REALES

Los rasgos de la utilización natural del lenguaje han comenzado a abrirse paso en los materiales para la enseñanza del inglés, aunque continúa siendo una característica de los mismos el hecho de poder ser reconocidos como lengua artificial. Existe todavía un largo camino por recorrer en el diseño de materiales que incorporen características de la utilización natural de la lengua; pero, al menos, el valor de proporcionar a los estudiantes lengua con tales rasgos es ampliamente reconocido. No se acepta tanto, sin embargo, que la experiencia de un ejercicio de audición de la lengua natural conlleva algo más que la ex-

posición a ciertos rasgos de la misma. Ello implica, igualmente, una gran variedad de ejercicios, y estos raramente se explotan en la metodología de la enseñanza del inglés.

En este artículo se perfila y discute un número de experiencias de audición de lengua natural. Luego se presentan unas muestras de actividades donde se utiliza lengua natural. El objetivo de cada actividad es constituir una réplica de la experiencia de audición de textos auténticos y la respuesta que originan, teniendo en cuenta, al mismo tiempo, las limitaciones pedagógicas.

AUTHENTIC LISTENING ACTIVITIES

Features of authentic language use are beginning to make their way into ELT materials, although it continues to be characteristic of listening materials that they are recognizable as not being the 'real thing'. There is still a long way to go in the design of listening materials which incorporate features of real use, but at least the value of exposing learners to such features is widely accepted. It is not so widely accepted, however, that the authentic listening experience involves more than exposure to certain

features of *language*: it also involves a great variety of listening *activities*, and these are rarely exploited in ELT methodology.

In this article a number of authentic listening experiences are outlined and discussed. A set of sample classroom activities is then presented, in which authentic texts are exploited. The aim of each activity is to replicate authentic listening experiences and outputs while taking pedagogic constraints into account.

EXERCICES D'AUDITION DE TEXTES RÉELS

Les traits d'utilisation naturelle du langage ont commencé à se frayer un passage dans l'enseignement de l'anglais, bien qu'ils présentent toujours la caractéristique de pouvoir être reconnus comme langue artificielle. Un long chemin reste à parcourir dans le développement de matériel qui contienne des caractéristiques de l'utilisation naturelle de la langue; mais l'importance de pouvoir proposer aux étudiants la langue avec ces traits est tout au moins reconnue. Cependant on n'accepte pas tellement que l'expérience d'un exercice d'audition de langue naturelle entraîne quelque chose de plus que le fait d'être exposé à certains traits

de la langue naturelle elle-même. Ceci implique également une grande variété d'exercices qui sont rarement utilisés dans la méthodologie de l'enseignement de l'anglais.

Dans cet article, un certain nombre d'expériences d'audition de langue naturelle est étudié et discuté. Ensuite sont présentés quelques exemples d'activités où la langue naturelle est utilisée. L'objectif de chaque activité est de constituer une réplique de l'expérience d'audition de textes authentiques, ainsi que la réponse qui en découle, tenant compte en même temps des limitations pédagogiques.